

B AUKERA

Steve Paxton eta dantza garaikidea

Postmodernismoa Estatu Batuetan garatu zen eta Judson Memorial Church izan zuen ardatz New Yorken. Zentro horren inguruan artista ugari bilduko ziren, eta estetika koreografiko berriaren banderadun bihurtuko ziren...

Artista berriek dantzaren liberazioa proposatzen zuten, Paul Taylorrek Duet lanarekin planteatu zuen bezala. Mutur horietara iritsi gabe, edo batzuetan gaindituz, Judson Churcheko koreografoak —horien artean Steve Paxton nabarmendu behar da— eguneroko mugimenduaren lurraldeak esploratzeko prest agertu ziren, baita mugimendu hori eszenatokietan produktu artistiko bihurtuta nola gauzatu zitekeen aztertzeko ere. Artista plastikoek *objet trouvee*-a errealitate artistiko gisa sagaratu zuten bezala, edo John Cage-k berak eguneroko zaratak musikan duen aplikazioa aztertu zuen bezala, koreografo berriek *movement trouvee*-a nola islatu eta dimentsio berri bat nola eman planteatzen zuten. Eguneroko gertaerak, ibiltzea, esertzea, jarrerak eskuratzea, arreta jartzea, jantzea edo erantztea Steve Paxtonen *Flat* (1964) bezalako lanetan aztertu zituen.

Erreferentzia:

ABAD, A. (2004). *La historia del ballet y de la danza moderna*. Alianza [335-336 or.]

Bideoak:

Judson memorial church, dantza testuingurua ikusteko bideoa

<https://www.youtube.com/watch?v=zscZWRrFRbQ&list=PLuBLk3dQuDrn91Ou-Du6UnAZLJ-IrNOAw>

Analisirako Steve Paxtonen bi bideo.

<https://www.youtube.com/watch?v=KdpzhCkfg1M>

<https://www.youtube.com/watch?v=5J4in0y3at4>